

Ibon Sarasolarekin berbetan

ELKARRIZKETA: KOLDO BIGURI

■ *Terminologian, hizkera teknikoaren definizioa, hau da, hiztegi orokorrarekin duten aldeak, esango zenuke?*

Nik uste dut diferentziarik handiena zera dela: terminoek izan behar dutela bana-banakoak, hau da, biunibokoak. Adibidez, *lana* mundu normalean gauza bat da baina fisikan, zuk hartzen duzu piano bat, ematen diozu gelari buelta, eta egiten duzun lana zero da; beste gauza bat da, ze, fisikan integral gisa definitzen baita. Nik uste dut hori dela batez ere. Gainerako diferentzia guztiak bigarren mailakoak izango lirarteke.

■ *Ezin direla izan polisemikoak, e.a...?*

Hori. Horrela izan beharko luke bederen. Gero, errealitatean ez dago horrelakorik, ezta fisikan ere; adibidez ingelesez *speedy* eta *velocity* bereziten dira, hots, lastertasun eskalarra eta bektoriala, beste hizkuntzetan ez bezala.

■ *Kontaiguzu itzulpenaren inguruan duzun esperientzia, bai itzultzaile moduan, bai irakurle moduan, eta horrek irakatsi dizuna.*

Ni itzultzaile banaiz, batez ere zeragatik da: banuen sormen literarioaren aldetik zerbait egiteko gogoia, eta garairen batean are premia. Hasieran, egia esan, itzulpena literaturaren suzedaneo bezala-edo hartu nuen eta horrela sartu nintzen kontu horretan. Baina sartu ahala —ni naizen bezalakoa izanik batez ere— berehala problema teorikoei aurre egin behar izan nien, eta alde horretatik beti izan naiz, eman dezagun, hitzez-hitze itzulpenen zalegoa, libreena baino.

Niretzat *Candido* izan zen lehendabiziko saioetan gustukoena. Gogoratzen naiz saiatzen nintzela frantses hitza arraroa baldin bazen, euskal hitz arraroa ematen, eta ildo horretatik. Frantsesez beti hitz bera jartzen zuenean, euskaraz beti hitz bera jartzea... segun. Frantsesez bi hitz paretsu baldin badaude eta euskaraz bakarra, hori ezin duzu egin, baina bestela bai, eta hortik jo nuen.

Gero, *Teseu* itzuli nuen, Giderena, eta agian pasatu egin nintzen garbizale aldetik. Nire buruarekiko erronka moduko bat izan

zen, ea noraino egin zitekeen Plazido Mujikaren hitzak soilik erabiliak. Batez ere eskarmentua izan zen ikusteko bide horren mugak, etab. Baina, beno... laburbilduz, ezer gutxi teoria mailan, intuizio batzuk finkatzea besterik ez, gehien bat. Dena dela, barka, baina itzulpenaren teoriaz irakurri ditudan gauza gehienak, eta irakurri ditut bat baino gehiago, azken batean —azken batean— hori besterik ez dira, apaingarri «zientifikoak» gora behera. Hitz batean esateko, itzulpengintza hurbilago dagoela zapatagintzatik egoera gotorreko fisikatik baino. Zapatagile baten kontakizunak bezalakoak dira —zapatagile batek idatziko balu— artikulu teoriko gehienak...

Itzulpen irakurle bezala, berriz, nik uste dut euskal itzulpena oso momentu ona ari dela pasatzen. Gertatu izan zait euskal idazle bati itzulpen bat irakurri, ikaragarri ona, eta gero, hori dela eta, bere obra orijinalak irakurri, eta nik uste jatorrago-edo agertzen zela itzulpenean orijinalan baino. Izenik ez dut aipatuko, baina, itzulpena ez zenean, berezkoa zenean, bazuen bere abileziak erakusteko gogo bat, bestean ez zuena.

Orain ari naiz irakurtzen *Altxor uhartea*, eta oso ondo itzulia dagoela iruditzen zait, batez ere niretzat garrantzizkoena den puntuan, esaldiaren orekan. Eta Andu Lertxundik esaten duen bezala, sortzen ari gara, itzulpen lanak bortxaturik, halako esapide altxor bat, berezko sorkuntza lanetan saihestu ditzakezun esapideak baina itzultzean nahitaez aurre egin behar diezunak. Alde honetatik idazleak batez ere askoz kaso gehiago egin behar lioke egungo euskal itzulpengintzari. Itzulpengintza literarioaz ari naiz, noski. Benetan badaude itzulpen batzuk testu ori-

jinal asko baino interesgarriagoak euskararen aldetik bertatik. Hori da nire esperientzia.

■ *Euskarara hizkuntza jakinetatik itzultzen da batez ere, administrazioa gaztelaniatik, telebistara ingelesetik, argitalpenetan ez dakigu... Zuk esan duzu behin baino gehiagotan hizkuntza bakarretik itzultzen dela euskarara. Gaztelania da beti tarteko? Besteetatik itzulita ere bai? Beharbada bai. Hala bada, nola gertatzen da hori?*

Nik uste dut hori nabarmena dela. Are ustez ingelesetik itzultzen diren zenbait lan —kasu konkretuez ari naiz— itzultzailearen buruan inkontzienteki ingelesetik espainolera pasa ondoren ematen dira euskaraz. Bestalde, oso gutxitan ikusten da ingelesak eskaintzen dituen baliabideen aprobetxatze sistematikorik. Ia dena pasatzen da, buruan edo, espainolaren filtro inkontzientetik. Dena dela, ingelesetik gutxi itzultzen da, eta batez ere literatura itzultzen da. Bestalde, badago jende asko gure herrian, batez ere funtzionario asko, literatura munduko jendeak egiten duena, nahiz orijinala, nahiz itzulpena balio gutxikotzat jotzen duena, literatoek ez omen dutela disziplinarik aitzakiatzat edo hartuta. Hots, gehiago preziatzen dute disziplina —edozein eskola edo segizioerekiko atxikimendua— euskara ona baino. Beraz, praktikan itzultzaile sektore handi batentzat hori dena ez dago, eta bakarrik erdaraz itzultzen dena dago. Beste alde batetik telebistan bertan ingelesetik itzultzen omen direnetan «españolada» nabarmenak soma daitezke... Arazo latza dugu hor.

■ *Seguru asko kanpoko hizkuntzak ez dakizkigulako gaztelera dakigun neurrian...?*

Dударик gabe. Eta hortik lehen esaten nuena. Inkontzienteki ez dira beste hizkun-

tzak aprobetxatzen. Inoiz gertatu zait, hiztegi-definizioak egiten, frantsesezkoa hartu eta ezin itzuli, gaztelaniazkoa hartu eta ezin itzuli, ingelesezkoa hartu eta askoz errezago eta itzulerrazago atera kontuak. Jendea gehienetan ez da horretaz konturatzen edo ez da horretaz baliatzen. Batez ere automatikoki egiten den irakaskuntza munduko itzulpen-teknikoetan-eta nire ustez ez da egiten, eta pena da.

■ *Hizkuntzalari batek baino gehiagok aitortu du bere hizkuntzan egiturak atzemateko eta aztertzeko itzulpenaz baliatu dela. Zein da zentzu horretan zure esperientzia?*

Inoiz edo behin gertatu zait eta egin dut horrelakorik baina, egia esan, ez dut esperientzia handirik horretan, ez.

■ *Euskarara askoz gehiago itzultzen da euskaratik baino. Horrek merezi al du analisi bat baino gehiago alde askotatik? Egoera hori ez da gaurkoa, gainera. Ez al duzu uste honek asko baldintzatzen duela euskal gramatikaren historia, euskararen analisia beste hizkuntzetatik abiatuta egiten zelako? Gaur bertan zer eragin izan dezake horrek?*

Hor gauza praktiko bat badago: udal-txetean-eta sartu den mania hori, ezta? Buru-argia izateko, antza, erdalduna izan behar da, eta beraz beti erdaldunak egin behar ditu txostenak-eta, eta gero horretarako daude teknikariak eta itzultzaileak euskaraz jartzeko... Estrategia hori disparate hutsa iruditzen zait hizkuntzaren garapenerako, besteak beste askotan askoz errazagoa delako lehen-dabiziko testua euskaraz egitea. Hor badago ohitura txar bat eta zabarkeria bat gorengo mailatik konpontzen hasi behar litzatekeena. Zeren kontu honi aurre egitea hizkuntza politika egiazko baten puntu nagusi bat bali-litzateke.

Hortik aparte, Europako kultura ezin daiteke ulertu itzulpena gabe. Europako kulturari itzulpena kendu, eta uharteak geratuko lirakeke. Gu itzulpenezko mundu horretan bizi izan gara, gure literatura klasikoaren zati handi bat itzulpena edo egokitza-pena da, eta itzultze eta egokitze lan horretan trebatu zen euskara komunikazio tresna gisa, Leizarragaren, Axularren, Møgelen, Lardizabalen eta-barren eskuetan. Hor hizkuntzen arteko eragin normala dago, normala eta osasungarria. Oraingoa da normala ez dena, orekarik ez dagoelako. Kontaktoa euskararentzat itogarria gertatzen ari delako, itogarria eta hilgarria, ez lehen bezala osasungarria. Eta hala izango da arazoari aurre egiteko neurriak pentsatzen ez direino.

■ *Guk dei publiko bat egiten dugu itzulpenari euskararen bizitzan duen garrantzia aitortzeko. Sinatzen al duzu zuk? Zein baldintzatan?*

Bai, izenpentzen dut, bai. Eta zein baldintzatan? Lehen esan duguna, mekanismo automatiko hori, morrontza dakarren hori, tartean ez baldin badago. Hizkuntzaren autonomia gordetzen saiatzen zaren neurrian, eta itsu-itsuan bestearen morroi jartzen ez garen neurrian. Eta berriro diot, nik uste literatura itzulpenetan dexente gorde izan dela azken bolada honetan hori. Ez dut uste beste horrenbeste esan litekeenik —nire esperientzian— udaletan eta boletinetan-eta egiten diren zenbait gauzez.

■ *Hiztegigilea zaren aldetik zer irizten diezu gaur egungo euskarazko itzulpenari oro har? Zer ikasi beharko lukete gaurko itzultzaileek gure literatura klasikoko itzultzaileengandik?*

Asko, eta batez ere esaldiaren oreka. Gure artean, batzuegan behintzat, badago halako joera bat horrela pentsatzeko: frase hau gra-

matikala da, beraz ez du aitzakiarik. Eta bai, aitzaki asko izan ditzake komunikazio-ekin-tzaren aldetik. Adibide bat jarriko dut: Axularrek itzultzen du delako pasartea eta lehen-dabiziko irakurraldian ulertzen da. Nik behintzat ez dut arazorik ulertzeko. Montaigneren «entseiuak» Gil Beraren itzulpena hartzen duzu eta Axular ematen du, baina diferentzia nagusi bat du Axularrekiko: ez da ulertzen lehen-dabiziko irakurketan. Axularren garrantzizkoena falta zaio: esaldiaren oreka. Axular gehi Altube da Gil Bera, eta hortik ateratzen da nahastea. Esaldi batek bete behar duen lehen baldintza hau da: euskaldun ikasi batek ulertzeko modukoa izan behar du; hori ez bada lortzen, itzulpena ezin da ona izan. Hori ulertzen ez dugun bitartean alferrik ari gara klasikoak irakurtzen, Axular eta abarregandik hartzen dugu hartu behar ez duguna, hots, axaleko huskeriak, «betikotz» edo «ziratekeen» edo «konpli da» eta horrelako huskeriak eta pedantekeriak, eta Axularren benetako aportazioaz, hots bere esaldiaren komunikazio ahalmen izugarriaz baraurik gertatzen gara; hitz batean esateko, alferlanean ari gara.

■ *Euskarak kultura hizkuntzen artean duen atzerapena eta gure gizartean bertan duen errealitate murrizta ere kontuan izanda, posible al da euskarara itzultzea?*

Bai. Hain zuzen, gainera, nik uste dut problema horiek konpontzeko modu bat itzulpena plangintza baten barruan egitea dela. Nik, nahiago dut fisikako liburu on bat ondo itzulia —eta hizkuntza gehienek horrela egin dute historikoki hizkuntza teknikoa— itxuraz berezkoa baina praktikan erdararekiko morrontza askotan handiagoa duena eta gainetik mamiaren aldetik erdipur-

dikoa dena baino. Alde horretatik, lehenda-bizi hiztegi teknikoak hutsetik atera eta ondoren horien arabera testugintza burutzea orga idien aurretik jartzea iruditzen zait. Bestalde itzulpen on batek nik uste dut ez diola inori kalte egiten.

■ *Gaur egun publikoki erabiltzen den euskara gehiena itzultakoa da baina inork gutxi hartzen du aintzakotzat hori. Zer nolako ondorioa eduki dezake horrek? Ba al daiteke gaur egun euskara normaltzea eta zabaltzea itzulpenik gabe? Prestatuta al gaude erronka horretarako? Zer behar genuke?*

Hizkuntza batetik baino gehiagotik itzuli eta hizkuntzaren autonomia hondatu gabe. Inoren morroi izan gabe. Eta iturburuko egituraren barruan ikasteko dagoena aprobetxatuz.

■ *Itzulpenaren eraginez iritsi al daiteke euskara aldatzera? Onerako ala txarrerako?*

Noski, eta aldatzen ari da. Hirietako kalemekume bat, bere buruan etengabe itzultzen ari dena hartzea besterik ez duzu. Ari da aldatzen txarrerako, dudarik gabe. Itzultzaile onen artean onerako ere aldatzen ari dela? Baita ere. Orain euskaldunak badu lehen ez zuen errepertorio bat, esapideetan etabar, itzultzaileek sartu eta landu dituztenak, lehen esan dudana bezala.

■ *Euskal Herrian asko itzultzen da gaur egun euskarara. Zer dago soberan, zer falta zaigu?*

Niretzat soberan dago udaletxeetan eta hainbat tokitan egiten den gehiena. Adibidez, orain dela gutxi kontatu zidaten kasu bat, Kutxako langile baten arrebari kontratista batzuek eskatu zioten itzulpen bat, Gipuzkoako Foru Aldundiak obra-konkurtoetan eta euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztea

eskatzan dituen horietako baterako. Itzulpen klase hori egiteko ez zela gauza esan zuenean, «es lo mismo cómo salga, es para cubrir el expediente» erantzun zioten. Badago jende bat itzulpen lana oso gaizki egiten duena, eta lan itxuragabe trakets horretatik bizi dena, euskararen kontura, nolabait esan, bizi dena. Horrekin euskarak ez dakit zer irabazten duen. Gaur egun administrazioan itzultzen den %80arekin ez dakit euskarak zer irabazten duen, baina badakit zer galtzen duen: gero gauza horiek berak hobeki egiteko ahalbidea.

Eta, zer itzuliko nukeen? Ari dira egiten: literatura unibertsaleko liburuak ondo itzuli. Pentsamendu unibertsaleko liburuak ondo itzuli. Hor bai dagoela premia. Baina batez ere ondo eginak diren neurrian. Baina produkzio hori guztia, hainbat herritako «bandoak», adibidez... Zer pintatzen du «bando» batek inork ulertzen ez duen euskara batean; nori egiten dio mesede?

■ *Terminologian dauzkagun arazo, hutsune eta beharrei dagokienez, zer esango zenuke: betetzen ari al da behar hori? Terminologigintza noren ardura da?*

Beharrak handiak dira, ez dira betetzen, eta nik uste dut terminologigintza unibertsitateak hartu beharko lukeela bere gain eta profesionalak egin beharko luketeela eta, batez ere, aurreko euskararen batasuneko zenbait fantasia faltsu-eta, oraindik arrastaka daramatzagunak, errebisatu beharko liratekeela, eta uste dut momentua dela orain beste ikuspuntu batzuetatik kontu horiek guztiak errebisatzeko eta autonomia gehiagorekin egiteko.

■ *Katalunyan bizi zarenez, konparatuko zenituzke hango eta hemengo egoera?*

Han ere badago *catalá light* eta *catalá hard*-aren kontua. Problema hori badago. Dena dela, nahiko nuke hango *light*-ek —orain «likidazionista» deitzen dituztenek— adina errespetu balute hemengoek hizkuntzarekiko.

Han profesionalagoak dira, unibertsitateko jendeak du pisua, hemen ez bezala. Profesionalen kontua da. Han jende gehiago dago, esperientzia gehiago dute, hizkuntza eginagoa dute, beste maila bat dute, eta, batez ere, profesionalagoak dira. Hori unibertsitateko lana da eta unibertsitatean edo unibertsitarioek zuzendua egiten da...